

tú"). Ironiak ardatz berriak Galdósen kasuan. Umbralak eleberrigilearen kontinentzia-eza eta estilo-zabartasunaz irribarre egiten du. Txantxa edo txoteoa, estilora ez ezik, idazlearen mamira ere biltzen da ("Yo te encuentro un poco masonazo. —Galdós es hombre de Cristo...— Un liberalote... Y hubo carcajada general").

Eta, noski, ezin zen falta Umbralen ironian poeta baten kontrako eztenkadarik. Bere luma beti izan da zorrotza —errukigabea— poeta askorekin), adibidez, Manuel Machado, Dionisio Ridruejorekin), eta kasu honetan idazlearen zirtoak Rubén Darioren aurka, behin eta berriz. Poetaren barnekoitasun musikala, aldarate delikatuak, karakterizazio literariok txantxabide bihurtzen dira sarritan ("...Cuando se ponía el uniforme de embajador estaba

*impresionante, grandioso en su fealdad, sólo que a medianoche, ya muy bebido, se quitaba los zapatos y andaba de embajador descalzo...*", "Se le ve la pluma de indio por detrás", "Rubén era modernista, porvenirista, revolucionario de la poesía y de la vida...").

Hona hemen eleberrigilearen —txoteotan apartekoa denaren— zertzelada zenbait. Ironiaren alderdiarekin aztertzeok litzateke bere alde formalak pertsonaien karakterizazioak ematerakoan. Maiz, edozein adierazpen datual metafora huts bilakatzen da berarengan; hobe esanda, bere idazkerara osoa etengabeko metafora da, irudi fresko eta bitxiz hornitutako koadroa, eta goian esaten genuenez, dudarik gabe, gaur egun Espainiak duen prosistarik bikainenetakoa. Hemengo liburua horren lekuko da.

*Luis Mari Mujika*

SARASOLA, Ibon. *Euskara batuaren ajeak* (Saiakera). 21 x 15 zm., 283 orr. Alberdania, S. L. (2. argitaraldia). Irun, 1997.

Kritikarik ez zaio falta izan liburu honi, onerako edo txarrerako, eztabaidarik aski sortu du idazle gazteen artean eta horrek bultzatu ninduen zuzenean azagutza, kritikok zergatik eta zertarako ziren jakiteko asmoz.

Baina bertan ikusten dudan jokaerak, argi dago gure hizkuntzaren literatura hobekuntzarako kontseiluak besterik ez di-

tuelako. Norbaiti min eman badio, has dadila berekiko gogoetan eta ez haur kaxkagor haserriatik bezala zalapartak sortuz gauzak nahasten.

Egileak, liburu hau, euskara jatorraren alde burutua du. Bertan salatzen dituen hitz eta hitzen loturazko gomendioeri jaramonik egiten ez bazaie, zalantzarik gabe, euskaldun jatorrek ere erdara ongi

ezagutu beharra dute baldin irakurria xeheki ulertuko badute.

Esan bezala, eztabaidarik aski sortu du bai liburu honek, baina nire irudiz beharrezko zaigu bertan salatzen dituen puntuak kontutan hartuz literaturagintza ahalik eta biderik egokienetik eramango bada.

Aurreak erakusten omen du atzea nola dantzatu, eta alde horretatik beharrezkoak genituen Ibon Sarasolak jatortasunaren alde azaltzen dituen adibideok.

Hitzaurrean argi dioenez: "Orobat, *Euskara batuaren ajeena* baino, *Euskara batuko hitzen ajeena* da hiztegi moduko hau". Bertan dioen bezala, bere *Euskal Hiztegia*-n azalpen bat behar duten milaka hitzen artetik hautatu dituen batzuren adibideak baizik ez dira, "Euskararen batasunarena eta txukuntasunarena" esango digu, "Bigarren mailako aldeak baztertuz gero, bi euskalki ditu gaur egun euskarak: Iparraldeko bat, frantsesaren eragina nabari duena; bestea, Hegoaldeko euskalkia, errotik espainolaren mende dagoena, eta askoren aho-lumetan beste ezer baino gehiago *chicano* moduko bat dirudiena". Behar bada gogorregi ari da, baina batzurentzat, iratzartuko badira, beharrezko zaie maila hortatik jardutze hori; jarraian dio, "Nire ahalegin nagusia hau izan da: bi

euskalki horien batasuna egiteko, dagoen *bide bakarra* erakustea". Nork uka lezake bere asmo ona? Nork uka, esaten duelarik: "Naturaltasuna falta zaie egungo hitz berri askori. Eta naturaltasuna falta zaie, besteak beste, Hegoaldeko euskara mendean daukan espainol mota oso *snob*-a delako". Hor dago gakoa eta batzuri gakoa mingarria izaki.

*Euskara batuaren ajeak*, bere edukian, oso gomendagarri diren eraskinak aurkezten ditu. Bakoitzak ikusi behar bertatik zer eta nola hauta, zer hori, non eta nori begira idazten duenaren arabera. Horregatik, hain zuzen, eskertu behar genioke eskaini digun saiakera hau. Eduki ona du, euskal hitzez, hizkuntza bakarretikako itzulpenez eta bestez. Gero, hor dakar begien aurrera, erdarearen erasoari buruz norainokoa den kazetaritzan nabari den axolaketasuna, era berean exotoponimoen euskal formazko adibideak eta azkenik hitz aipagarrienen hautaketa.

Irakurgarria ez ezik kontsultagarria ere bada liburu hau. Inori ez dio kalterik egingo eta bai euskari on. Jaramon egitekoa da, hobekuntzak aberasgarri direnez gero. Adibide guztiok gure idazle zaharragoetan oinarritzen dira eta horrek ere zer pentsa adierazi behar lizuke.

*J. San Martin*